

ENPRESEN konfiantza

2025EKO 4. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


2025EKO 4. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2025eko laugarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Emaitzek erakutsi dutenez, aurreko hiruhilekoan baino apur bat positiboagoa izango da ingurune ekonomikoa.

Zehazki, enpresen % 10,9k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 49,5ek uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 39,6k, okerrera egingo duela.




1 FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, 2025eko **hirugarren** hiruhilekoaren antzeko ikuspegia dute enpresek. Zehazki, galdetutako enpresen % 26,2k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 58,4ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 15,3k okerragoa izango dela aurreikusten du.




2 JARDUERA

JARDUERAk, berriz, 2025eko laugarren hiruhilekoan hobera egingo du % 22,0ren iritziz, eta % 18,8ren arabera, okerrera. Lagineko gainerako % 59,2ak, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




3 ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortzen da berehala: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek; hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, espero da nolabaitekoa egonkortasuna izatea bi kontzeptuetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun dioten % 26,5en iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 15,3ren ustez, txikitu. Enpresen % 58,2ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




4 PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 13,4k uste du igo egingo direla, eta % 81,7k, bere horretan jarraituko dutela.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 84,6ren arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da, eta enpresen % 15,3k uste du errendimendu handiagoa lortuko duela.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek erakusten dutenaren arabera, ikuspegia ez da aurreko hiruhilekoan bezain baikorra, eta horrek inbertsioari ere eragingo dio.

Inbertsio-bolumenari begira, enpresen % 11,9k uste du gora egingo duela **2025eko laugarren hiruhilekoan**. % 8,7ren iritziz, berriz, behera egingo du. Hortaz, inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago galdetutako enpresen % 79,5.



7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 81,4k erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 13,1ek langile-taldea handitzeko itzaropena du, eta % 5,4k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2025EKO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak —inguruneari buruzko iritzia izan ezik— gehitu eta haztatzen baditugu, 53,6ko konfiantza-indizea lortuko dugu. Hau da, aurreko hiruhilekoko baino txikixeagoa (54,6koa izan baitzen). Beraz, enpresek ikuspegi baikorra dute ekonomiaren bilakaerari buruz, 2025eko laugarren hiruhilekoari begira. Indizearen balioa 50etik gorakoa izateak jarduera hedatzen ari dela adierazten du. Gainera, balioa handiagoa da eurogunean lortutako baino —51,2ko datua lortu zen irailean—, eta Estatuan lortutakoaren antzekoa —53,8ko datua, irailean—.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu; ez dira aurretik azaldutako indizean sartzen. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 23,8k uste du hobera egin duela, eta % 30,0k txarrera egin duela. % 46,3ren iritzian, kanpoko salmentek bere horretan jarraitu dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZAri edo I+Gko EKIMENei bideraturiko salmenten ehunekoaren inguruan, inkestaturen % 66,6 balio minimoetan kokatzen da: Ezer ez eta % 1 artean. Bestalde, % 11,1ek salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 78,0ren ustez, bezeroei KOB RATZ EKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 13,4ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 8,7k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 81,7k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 11,6k dio hobetu egin dela, eta % 6,7k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




2025EAN ADIERAZLEAK IZAN DUEN BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA



12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzial eta osoen balioak ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

- EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.
- Landa-azterketa irailaren 8tik 11ra bitartean egin zen.